

HAU DA BIZIMODUA!

1.

“Hartu maletak eta
Goazen Benidorra”,
hantxe barriztatzen du
aitonak motorra...
Eta amonak nola
bizkortu mokorra!
Hau behar genduen ta
hau duk artajorra!

2.

Jan, lo eta ibilli,
kantu ta kontua,
kafia hartuta gero
kartetako ordua.
Ez genekien zanik
hain ona mundua;
dena joan zalakuan,
hau bizimodua!

3.

Lagunak onduan ta
eskuan Biblia,
aspaldian egin naiz
Jaungoiko zalia.
“Bizian gora” dugu
gure familia,
jubilaziorako
hau erregalia!

4.

Canfali hotelean
hirurogei lagun,
hau bizimodu ona
hamairu bat egun!
Hotelean eliza
ez dago edonun;
gu edonun gara ta
euskaldun fededun.

5.

“Benidorrera ez da
sartu holakorik”,
gutarik ez omen da
burutik sanorik;
Gu bezin ondo ez da
munduan askorik;
gu zoriontsu gara,
nahiz egon erorik.

6.

Anaiarte gozoan
ez da gauza txarrik,
hemen ez dut sentitzen
pastila beharrik
Gu baiño hobeki nor,
ez gazte, ez zaharrik?
Munduan behintzat ez;
zeruan bakarrik.

7.

Osasunez beterik
gorputz ta anima,
bizitzen jarraitzeko
nola ez anima?
Gure “Bizian gora”
dezagun estima,
askok ez dakite ta
hau da lastima!

8.

Gauza bat da esana
beste bat izana,
erditxo bat ere ez da
esanahala dana...
Ikusten duzu pozik
pilpil gabiltzana,
ez dakizu hau zer den
ai ene laztana!

9.

Hementxe betetzen da
Jesusek diona:
“Ogiz bakarrik ez da
asetzen gizona”.
Benidorreko zer hau
hain da gauza ona,
hementxe txastatzen da
zer dan zoriona.

10.

Ondo ibilli gara
Benidor partian,
denok umore onez
eta anaiartian.
Osasun, pakez bizi
bien bitartian,
Jaunak elkartu arte
datorren urtian.

A.Martzel